

KOMUNIKAZIO ARDURADUNA LANPOSTU DEIALDIA

- **Eskaintzaren deskribapena:**

Gure lan-taldea sendotu eta osatzeko lankide baten bila gabilta. Zehazki, gure enpresan komunikazioa, diseinu grafikoa eta sare sozialak eramateaz arduratuko den pertsona bat batu nahi dugu gure proiektura. Baita, Farapi Kooperatibaren egitura eta estrategia komunikazioaren ikuspegitik elikatu eta garatzeko gaitasuna eta gogoia izango duen norbait izatea nahiko genuke.

- **Zer da Farapi?**

Pertsonak erdigunean jartzen dituen proiektu feminista eta euskalduna. Talde lana eta elkar-lana bultzatuz pertsonen ahalduz biltzen duena. Etengabe hazi eta garatzeko aukera ematen duen proiektu zintzoa. Konpromisoa eta ahalegina eskatzen duen proiektu konprometitua eta eraldatzailea gara.

- **Noren bila gabilta?**

Pertsona sortzaile, ekintzaile, proaktibo eta balioaniztuna. Taldean aritzeko gaitasuna eta gogoia duena eta Farapi Kooperatibaren balio, helburu eta egiteko moduekin bat egiten duena. Baita ere komunikazioari eta diseinuari lotutako lanak egiteaz gain, gure enpresak jorratzen dituen beste alor edo esku hartze eremuetan lan egiteko gaitasuna izango duena (feminismoa, ekonomia soziala eta parte hartzea, nagusiki).

- **Zer eskaintzen dugu?**

- Jardunaldi erdiko (20 ordu astean) kontratu mugagabea, 2 hilabeteko proba aldiarekin.
- 16.498,32 €-ko urteko soldata gordina.
- Deskantsuak lanaldi barruan sartzen dira (0,5 ordu egunean).
- Bulegora garraio publikoan etortzeagatik garraio plus bat (jatorriaren arabera zehazten dena).
- Proiektuei lotuta langilea norberaren kotxean mugitu beharko balitz kilometrajeari lotutako gastuak enpresak bere gain hartuko ditu.
- Ordutegi malgutasuna eta bulegoko lana eta telelana uztartzeko aukera.
- Lantalde anitz eta motibatu baten parte izatea.

- **Zer eskatzen dugu?**

- Komunikazio teknikari lanetan edo antzeko lanpostuetan urte beteko esperientzia izatea edo hurrengo gaiari lotutako unibertsitateko gradua edo lanbide heziketako goi-mailako titulazioa izatea: komunikazioa, ikus-entzunezkoa, publizitatea edo diseinu grafikoa.
- Gidatzeko baimena (B) eta kotxea erabiltzeko aukera.
- Euskara-maila altua, ahal dela EGA edo baliokidea.
- Gaztelera naturaltasunez menperatzea, hitz eginez eta idatziz.



- Komunikazio lanak burutzeaz gain, enpresak burutzen dituen bestelako proiektuetan parte hartzea (saioen dinamizazioak; erredakzioak, proposamenak, etab.).

- **Zer baloratuko dugu?**
 - Lan postuari lotutako funtzioak betetzeko beharrezkoak diren tresna informatiko eta digitalen ezagutza: sare sozialak (Twitter, Instagram, Facebook, YouTube, etabar.), diseinu grafikoko aplikazioak (Photoshop, InDesign, Gimp, Inkscape, Canvas), ikus-entzunezko proiektuak garatzeko programak (Premiere, Lightworks, OpenShot, Fimora), etabar.
 - Farapiko lan-lerro edo esku hartze eremuekin lotutako prestakuntza izatea edo mugimendu sozialetan parte hartu izanagatik eskuratutako esperientzia izatea: feminismoa, parte-hartzea, ekonomia sozial eta eraldatzailea, kulturartekotasuna.
 - Euskara eta Gaztelaniaz aparte, bestelako hizkuntzen ezagutza.

- **Interesatzen zaizula uste duzu?**
 - Zure CV eta aurkezpen euskarria (nahi duzun formatuan) helbide honetara bidali: info@farapi.com.
 - Postaren gain "Komunikazioa-Lan eskaintza" adierazi.
 - Hautagaitzak bidaltzeko epea: Martxoak 25.

[#Farapi](#) [#LanEskaintza](#) [#Komunikazioa](#)